

# **ARGITALPEN ERRESEINAK**



**LITERATURA terminoen hiztegia / Euskaltzaindiaren koordinaziopean. -- Bilbo : Euskaltzaindia, 2008. Testu hauen koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena Lourdes Otaegi Imaz irakasle andreak egin du. XXVI, 800 orr. ; 17 x 24 cm. - ( Hiztegiak ; 13). ISBN 978-84-95438-34-8. I. Euskaltzaindia II. Hiztegiak (Euskaltzaindia)**

*Luis Baraiazarra Txertudi,  
euskaltzain urgazlea*

Gure garaian, zorionez, normalizazio-bidean goaz euskarari dagokionez, nekez eta eragozpen handiak gaintuz bada ere. Horren adierazgarri dira euskal liburugintzan argia ikusiz doazen askotariko argitalpenak.

Normalizazio-bidea egiteko ezinbestekotzat ditugu zientziak eta arteak lantzeko baliabideak eskura izatea. Batez ere hiztegiak direla, esango nuke, eraiki nahi den azpiegitura-sarearen zutabeak.

Une honetan esku artean dudana *Literatura Terminoen Hiztegia* da. Honetaz, orrialde xumetan, neure ikuspegia agertzea eskatu zait.

Liburu honen garrantzia eta egokitasuna azpimarratu nahi nituzke. Egokitasuna esatean, balioa edo kalitatea ez ezik, premia adierazi nahi nuen. Beste lan batean murgildua nengoela, atzerantz egin behar izan nuen denboran eta orain dela berrogei urteko gabeziak ikusi nituen. Urte haietan mundu zaharretik berrirako jauzia gauzatzen ari ginelako ustea dut. Artean gure kultura autoktonoa, berez gainerako herriena bezain aberatsa, kultura hori lantzeko eskola eta azpiegitura propiorik ezak eragindako egoera gaitzean zen.

Egoera gaitz hura eta era askotako eragozpenak pizgarri gertatu zitzaizkien hainbat intelektual eta herritarri. Ordukoa da aldi berriko ikastolen sorrera; «aldi berrikoa» diot, gerra aurretik ere ahalegin serioak egin zirelako. Baina ikastolaren amets polita, gerra aurreko beste hainbat ekintza txalogarri bezala, gudu anker hark desegin zuen. 1960ko hamarkadaren hasieran piztu zen berriro amets hura, orduan emankor eta arrakastatsu izateko. Ikastolaren mugimendua ez zen bakarra. Euskara bera ere garai berrietarako egokitu beharra ikusi zen. Gure herriaren eraikuntzan, kultura modernoaren zutabe bezala jartzeko, euskara gaurkotu eta batua behar zen, betiko euskararen eta euskal-

kietan oinarria zuena baina gizarte berrirako tresna malgu eta egokia izango zena. Helduen Alfabetatzea ere garai berean abiatu zen. Zehazki esanik, 1966an izendatu zuen Euskaltzaindiak lehenengo Alfabetatze Batzordea. Juan San Martin, Patxi Altuna, Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta Rikardo Arregi ziren tarteko. Idazkari eta eragile Rikardo Arregi. Harrezkero, hau izan zen batzorde horren arima, Mendaron, 1968ko uztailean 10ean istripuz hil zen arte. UEU urte batzuk geroago sortu zen, 1973ko udan Miarritzen. Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean 1976-1977ko ikasturtean jarri zuten abian Gotzon Garate zena eragile zela. Euskaltzaindia bera izan da euskararen lemaizain zazpi herrialdeetan eta gaur egun ere horretan dihardu.

Hutsuneak izan arren, norabidea ongi hartua dugu mendebaldeko kulturari herri zahar honen ekarpen gaurkotua eskaintzeko. Iragan hurbileko euskaltzaleen lana gogorarazi nahi izan dut, oraingo egoera erosoago honetara berez-berez eta haizea lagun dela heldu garela inork uste izan ez dezan. Normalizazio-bidean urratsak emateko jende fin eta lan-talde askoren ametsak eta izerdia behar izan dira. Azken hamarkadetan kultura arloan izan dugun gorakadak lausotu egin digu, nolabait esateko, aurrekoa balioesteko ahalmena, beti horrela izan balitz bezala. Baina noizbaiteko eza eta gabeziak ezagutu dituenak ikuspegi hobea du oraingo urratsak, aurrerakadak sumatzeko.

Garai bateko ikasleok, gurean ez zena auzoan bilatzen genuenok, bai pozik hartuko genuela honelako lagungarri aberats eta egokia! *Literatura Terminoen Hiztegia* argitaratzean Euskaltzaindiak zerbitzu berdingabea eskaini die literatura irakasle eta ikasleei, literatura zaleei eta gainerako erabiltzaileei. Liburu honen egilea den batzordeak berak kultura normalizatuak aspaldidanik finkaturik zituzten literatura baliabide lexikoak, gurean, XX. mendeko azken herenean garatu zirela diosku. Beraz, hitz horietan sumatzen denez, gurean bazen hizkuntza gutxituetan ohikotzat jo daitekeen atzerapen edo hutsunea, «euskarazko ikaskuntza unibertsitarioek» beteko zutena, euskal literaturaren sistema azaldu eta ikertzeko nahiz nonahiko literaturari buruzko ikerlanak egiteko gure hizkuntza trebatzen ahaleginduz.

Literatura Ikerketa Batzordeak hasierako helburu nagusietako bat bete du Literatura Terminoen Hiztegia argitaratzean. Izan ere, 1989an sorturiko Literatura Batzordeak eta 1991n eratu zen Literatura Ikerketako Azpibatzerdeak hasieratik «zenbait proiektu hartu zituen gogoan, literatura arloko lanetan erabiltzen den terminologia finkatzeko eta ikertzeko asmoa hobetsi zuen arte, ikerketa esparru horretan lehentasunezko premia zuela irizita».

Atzerapenaren kontzientziak maiz eragiten digu gauzak presaka eta hala-hola egitera. Obra hau, ordea, hamazazpi urteren buruan eginiko talde-lanaren fruitu heldua da. Azpibatzerdeak hiztegi hau burutzeko egin duen ibilbidea ere zehazten zaigu. Hiztegiaren oinarritzko egitura eta sarrera-zerrenda finkatu ondoren, egile bakoitzak sarrera kopuru jakina hartu zuen bere gain, haiei buruz txostenak idazteko. Gero, Euskaltzaindiaren batzordeetan egin ohi de-



tzordeak metrikari buruz antolatutako jardunaldien ekarpen teorikoez baliatuz, batzordekideei falta ziren zenbait txosten idazteko eskatuz edota lehendik argitaratuak ziren haien zenbait lan honako egokitzuz eta hemen berrerrabiliz.

Beraz, obra garrantzitsua dugu aurrean, irakasle eta ikasleek, euskal le-tretakoez, idazleek, literatura zaleek, kazetariak gogotsu onartuko dutena, kontsultarako eskumenean izan nahiko dutena. Euskararen normalizazio-bi-dean oinarritzko obra dela ez dut zalantzarik, mugarritzat hartzea, beharbada, gehiegi bada ere. Ez, ez gara hasiko, Bernart Etxeparek euskara idatzizko lehen liburua argitaratzean bezala, kantari eta laudoriozko hitz zuritan, baina hiztegi bikain hau euskal komunitateari eskaintzeko urteetako lana egin duten egileei eskerrak eman beharrean gara.

Egileak literaturan adituak dira. «Erredakzioa euskal literaturaren ikaske-tetan aditu direnek gauzatu dute, egile zerrendak adierazten duenez, eta zalan-tzarik gabe horixe da hiztegi honen bermerik zindoena, lexiko honen behar gehiena dutenek idatzi dutela».

Kontuak ongi egin badituz, 596 sarrera daude hiztegian. Era askotakoak dira, bai headuraz eta bai izaeraz. Hamaika kategoria nagusi bereizten dira sarreraren artean, «Hiztegiaren argibideak» izeneko atalean esaten denez. Ez ditugu hemen errepikatuko, baina euskal erabiltzaile arruntak berariaz estima-tzen duena azpimarratu nahi nuke eta hori ere Literatura Ikerketa Batzordeko idazkariak berak adierazten digu egoki:

«Termino literarioen azalpena egitean, munduko beste edozein hizkun-tzatak hiztegiatan egon daitekeen informazioaz gain euskal literaturari dago-kiona biltzeko eta aurkezteko asmoa izan dugu beti gogoan. Ez zen aski, gure ustez, beste edonongo hiztegiak itzultzea; beharrezkoa zen euskal ikerketa lite-rarioen berri eman eta euskal literaturaren erreferentzia zehatzak eskaintzea. Horrek ekarri du, zenbaitetan, azalpenetan luzatzea, adibide eta argibide gehia-go eman behar izatea eta, ondorioz, tamaina bereko beste zenbait hiztegi-k baino termino gutxiagori buruz jardun ahal izatea, helburu informatibo eta di-daktikoari lehentasuna eman diegulako, euskal erabiltzailea gogoan hartuta».

«Euskal erabiltzailea gogoan hartuta» dio. Erabiltzaile horien artean ere ez dira guztiak joera berekoak; urliak literatur genero jakin bat izango du gogoko; sandiak beste bat eta abar. Are gehiago, zenbait termino eta kontzeptu arrotz edo ezezagun egingo zaizkio erabiltzaile arruntari. Esaterako, lerro xume hauek idazteko liburuaren eskaintza eta sarreratik abiatutik barneratu nahi nuen edukietan, poliki-poliki hiztegi-sarrerek irakurri eta hausnartuz. Horrela, oharrak jaso eta lerro hauek idazteko baliatuko nituen... Baina hiz-tegia ez da, alde horretatik, beste liburuak bezalakoa. Hauek batasun estuagoa dute edukiaren hariari jarraituz. Literatura hiztegian, edukiak literatura ar-lokoak dira eta hortik sortzen da nolabaiteko batasuna, baina ia hiztegi-sarre-rak adina eduki direla esan genezake; edukiak erdi banakoak edo autonomoak dira, zenbait multzotan bil badaitezke ere. Gorago gogoratu dugunez, «Hizte-

giaren argibideak» deritzon atalean hamaika kategoria nagusitan bereiz daitezkeela esaten zaigu.

Urratsez urrats joatean, lehenengo hiztegi-sarrera *abangoardia*. Hizkera militarretik datorren hitz hau, literatur mugimendu bat izendatzeko, Frantzian erabili zela lehen aldiz, dio txostengileak. Mugimendu honen jatorria, historia, honen antzeko beste joera berritzaileak aipatzen dira. Abangoardia hitzaren adiera literarioaren hedadura aldatuz joan dela urteen buruan. Abangoardiak ez omen dute eskola bat osatzen, etengabeko berrikuntza anizkoitza baizik. U. Ekok 1988an emandako ezaugarriak aipatzen dira... Interesgarri gertatu zait, oso entzuna nuen termino honen azpian zehazki zer zegoen ez bainekien. Beraz, jakin-nahia piztu zait. Orain lehen baino pixka bat gehiago dakit abangoardiak, baina ez gauza handirik; astialdi batean itzuliko naizela agindu diot neure buruari. Lehen sarreran betekadtxoa eginda, batetik bestera jauzika hasi naiz eta bazka gozoago eta ezagunagoa aurkitu dut: *Ahozko literatura* eta *ahozkotasuna*. Bi txosten luze samar eta egoki, bi adituren bermea dutenak. M. Eliadek ahozko literaturaz emaniko definizioa aurkitu dut batean eta bestean: «Noizbait inoren ahotik irten dena eta oroitzapen kolektiboak gorde duena». Ahozkotasuna deritzon bigarren txostenean tradiziozko literaturaren eta ahozkoa izan arren tradiziozkoa ez denaren arteko bereizketa dator; «azken horretan, komunikazio estetiko behin bakarrik egiten da, eta, agian denborarekin tradizional bilakatzea gerta baliteke ere, hasiera batean ez dago errepikapenik».

Bertsolaritza gogoko dugunontzat, nahiko ezaguna izan arren, oso gogotsu irakurri dut *Estrofa* sarrerako txosten luzea, Jean Haritschelar eta Juan Mari Lekuonak sinatzen dutena.

*Pastorala* ere nire interesguneen artean sartzen da. Eta beste asko eta asko, ia liburu honen eduki osoa, baina lerro xume hauetan ezin bil daiteke interesgarri gertatu den guztia, ezta haren aipamen soila egin ere. Beude goian esandakoak liburu jaso honek nigan sortu duen inpresioaren adierazgarri. Eta Literatura Ikerketa Batzordeko idazkariaren hitzez amaituko dut, egileen artean lan hau egitean izan den barne-giroa adierazten duten hitzez:

«Kemenez, ilusioz eta elkarren laguntzaz eginiko ahalegin borondatetsuaren fruitu da liburu hau, eta esker ona erakutsi nahi diegu ordainsaririk gabe parte hartu duten batzordekideei, euren ahaleginak eskaini dituztelako taldean eginiko proiektu honi laguntzeko. Ez da dudarik lan honek guztiak merezi izan duela pentsatuko dugula denok ere, datozen orrialdeok euskal literaturaren ikerketaren mesedetan eta euskal ikasketen zerbitzurako gerta balitez».





**LITERATURA terminoen hiztegia / Euskaltzaindiaren koordinaziopean. -- Bilbo : Euskaltzaindia, 2008. Testu hauen koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena Lourdes Otaegi Imaz irakasle andreak egin du. XXVI, 800 orr. ; 17 x 24 cm. - ( Hiztegiak ; 13). ISBN 978-84-95438-34-8. I. Euskaltzaindia II. Hiztegiak (Euskaltzaindia)**

*K. Josu Bijuesca,  
Deustuko Unibertsitatea*

*Literatura Terminoen Hiztegia* Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak lanaldi luze baten ondoren buruturiko emaitza borobil, oparo eta emankorra da. 1989an Literatura Batzordea sorturik, bi urteren ondoren ikerketa azpibatzerde bat eratu zuten. Ikerketa Batzorde horrek zenbait egitasmo eztabaidatu ondoren, oinarritik hasia erabaki zuen: literatura arloko lanetan erabiltzen den terminologia finkatzea eta ikertzea. Eta egitasmo hori bere egitean eta burutzean bete-betean asmatu du. Hasieran Juan Mari Lekuonaren zuzendaritzapean eta 2005 urteaz geroz Jean Haritschelharrenean, batzordea goi mailako erakunde akademikoetan lanean diharduten belaunaldi ezberdinetako aditu talde batek osatzen du. Literatura Ikerketa Batzordeko idazkaritza lanetan Jon Kortazar (1991-1994), Karlos Otegi (1995-2000) eta Lourdes Otaegi (2001-2008) jardun dira. Azken hori izan da testuen koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena egin duena, bai eta Literatura Ikerketa Batzordeari eta hiztegi honen argibideei buruzko testuak idatzi dituenak. Guztien artean aditu talde sendoa osatu dute, hiztegi-sarreretako azalpenek erakusten duten bezala.

Literatura Ikerketa Batzordeari buruzko aurkezpen orrietan aurreratu den bezala, Hiztegiaren corpus nagusia literatura terminoen sarreraren multzoak osatzen du. Lanaren ardatz den atal honekin batera beste hiru atal osagarri iragarritzen dira: (1) aipaturiko bibliografiaren zerrenda, (2) hiztegi sarreraren frantsesezko, gaztelaniazko eta ingelesezko baliokidetzak, eta (3) testuan zehar aipaturiko idazle, kritiko, teorialari edota bestelako pertsonaia historikoen zerrenda onomastikoa. Iragarritako azken atal honen ordez, ostera, «Hiztegiaren egileak» izeneko atal iragarri gabekoa aurkituko du irakurleak. Atal berri honetan sarrera hitzen zerrenda ageri da, zein bere egilearen edo egileen izenekin. Behar bada, azken orduko erabakiren batek azalduko luke iragarri-

takoaren eta agertutakoaren arteko aldea, eta azken ordukoa izanik, agian ohar gabe pasatu da aldaketa horren berri sasoiz ematea.

Hiztegiaren egileen eta ohar gabe pasatutakoan hariari heldu zaionez gero, abagune ezin hobea dugu hasierako «Hiztegi-sarreraren egileen izenak eta laburdurak» tituludun orrialdeko xehetasun deigarri bat aipatzeko: Jean Haritschelharren izena zerrenda honetatik kanpo gelditu da. Zorionez amaierako «Hiztegiaren egileak» atalak egileen izen guztiak bildu ditu. Bestela ere ez litzaioke irakurleari zail gertatuko asmatzea ea nor den zenbait hiztegi azalpenen amaierako J.H. hura. Jakingo du Haritschelhar irakasle, Euskaltzainburu ohi eta Literatura Ikerketa Batzorde buruaren eskuzabaltasunak hutsune hori barkatzen, *Literatura Terminoen Hiztegia* bera Juan Mari Lekuona batordeburu ohiari eskaintzen jakin duen bezala.

Hiztegiaren corpus nagusira itzuliz gero, mira egitekoa da egileek egin duten ekarpena literaturaren eremuko kontzeptuen ugaritasuna jasotzean. *Literatura Terminoen Hiztegia* kontsulta tresna izanik, egileen xede nagusia «literaturaren teoria, historia eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea izan da». Horretarako literatura terminoen hiztegiek bildu ohi dituzten edukiak eguneratu, euskaraz eman, eta horrekin batera euskal literaturari atxikitako azalpenak, adibideak eta ereduak eskaini dituzte. Ziur asko horietatik dira lan honen lorpen eta ekarpenik handienetakoak, erabiltzaileen eskura 610 hiztegi sarrera utzi baitituzte, horietatik 545 garatuak eta hortik gorakoak euren baliokide diren sarreretakoa igorpen oharrez hornituak. Esana denez, aberastasuna du *Literatura Terminoen Hiztegia* berariazko ekarpena, eta horrekin batera aberastasun hori euskaraz eta euskal literaturaren ikuspuntutik jaso eta eman izana.

Hiztegiaren aberastasuna sarrera kopuruan ez ezik, literaturaren alorreko kategorien ugaritasunean ere gauzatzen da, aurkezpen orrialdeetan iragarri legez: literaturaren teoria, historia eta kritikari dagozkion kontzeptuak, termino teknikoak eta korrante nagusiak; erretorika eta poetika klasikoan garaturiko termino teknikoak; metrikaren arlokoak eta molde metriko jakinen izenak; literatur generoak eta azpigeneroak; beste arte eta giza zientzietatik jasoriko termino teknikoak literaturan ohizko bilakatu badira (*leitmotiv*, *pastiche* eta horrelakoak); aldi literario, belaunaldi talde edota eskola jakinak, bai eta mugimendu eta abangoardiak; azkenik, aipaturiko kategorietan sailkagaitz baina literaturaren alorrean ohizko den terminorik ere bada.

Dena den, irakurle zuhurra laster ohartuko da *Literatura Terminoen Hiztegia* ematen duena baino are aberatsagoa dela, sarrerarik gabeko kontzeptu ugari sarreradun terminoetan ostendurik baitago. Esate baterako, *hamartia* dugu horietako bat. *Literatura Terminoen Hiztegia* hitz horren azalpen txukuna jaso du, baina ez dio sarrerarik eskaini. *Tragedia* terminotik abiatu beharra dago hitz horren azalpena aurkitzeko. Eta horixe bera gertatzen zaio sarrerarik gabeko *palindromo* hitzari ere, *Oulipo* terminoaren azalpenean bildua baita.

Bertsolaritzako moldeen berri bilatzen duenak *Estrofa* sarrerara jo beharko du, eta ez *hamarreko*, *zortziko* edo *lauko* bezalako hitzetara. *Literatura Terminoen Hiztegiaren* informazio ugaria erabilgarriago egiteko otu daitezkeen neurrien artean bi izan litezke errazenak datozen edizioetarako: (1) sarrera hitzak eskaintzea ostenduriko termino horiek ere ikusgai gerta daitezten, eta igorpen oharrez hornitu (*hamartia*, ikus *tragedia*; *palindromo*, ikus *Oulipo*); (2) hiztegiaren amaieran sarrerarik gabeko hitzen zerrenda bat eranstea bilatu beharreko terminoa adieraziz (*hamartia*: *tragedia*; *palindromo*: *Oulipo*).

Eduki aberastasunarekin batera *Literatura Terminoen Hiztegiaren* azalpen zuzentasun eta sendotasuna ere azpimarratu beharrekoa da. Hiztegiaren aurkezpenean esaten denez, azalpenak ondoko hiru atalotan eratu dira: lehenik hitzaren definizioa, jatorriaren berria eta sarritan etimologia ere; bigarren atalean azalpena garatzen da zenbait irizpideren arabera (bilakaera historikoa, ezaugarri bereziak, barne sailkapenak) edo adiera ezberdinak gogoan izanda; hirugarren atalean terminoak euskal literaturan izandako erabileraren berri ematen da euskal literaturatik hautaturiko adibide edo pasarte eta guzti, ahal bada. Eskertzekoa da egileek egin duten ahalegina azalpen zuzen eta osoak emateko, halakoxeak baitira azalpenak lehen hurbilketan behintzat. Askoren artean egindako lanetan espero litekeenez, batzuetan zailagoa gertatu da azalpenen arteko bateratasunari eustea egile ezberdinei zor zaien sarreraren kasuan. Hala, esate baterako, Brecht idazlearen *Verfremdungseffekt* kontzeptua euskaraz ematean: *katarsi* hitzaren azalpenean «arrozte efektu» gisa itzuli denari «arroztasun efektu» dagokio *urruntze* terminoarenean. *Isotopia* terminoak ez du sarrerarik, nahiz eta badirudien uneren batean edota egileren baten aldetik termino horri sarrera eta azalpena ere eskaintzeko asmoa izan dela, *sema* hitzaren definizioaren ondoren zera ageri baita: «Ikus, halaber, *Denotazio*, *Erreferente*, *Isotopia*, *Konnotazio*». Izan ere, *isotopia* hitza zenbait terminoren azalpenetan erabili da: *sema* aipatu berriarenean, edo *semantika* eta *isomorfismo* terminoenetan, besteak beste. Denetan aurkituko ditu irakurleak isotopia kontzeptuari buruzko azalpen egokiak.

Azalpenak albo batera utzita, ontzat ematekoa da sarrera hitza bera aukeratzeko orduan erabaki eztabaidatsuak eta sarritan zailak hartu behar izan direla, batez ere tradizio ezberdinen artean hautatu beharra izan denean. *Literatura Terminoen Hiztegiaren* aurkezpen orrialdeetan aitortzen zaigunez, «gure kultur esparruko hizkuntza nagusietan erabiltzen den lexikotik gehiegi urrunduko gintuzkeen joera garbitzailetik edo zokokerietatik» aldentzeko joera nagusitu da, nahiz eta «euskal erroko lexikoari ere ahal bezain sarrera zabala» emateko ahalegina agerikoa den. Behar bada euskal neologismoen aurrean sortu dira erabakirik zailenak, batez ere «egoki sortuak eta hedatuak» izanik ere, sarrera gisa eskaini ala ez aukeratu behar izan denean. Horien artekoak ditugu *antzerki* eta *antzerki*, biek ala biek sarrera eta azalpen bana merezi izandakoak. *Olerki* eta *olerti* neologismoekin ostera ez da modu berean jokatu. *Olerti* hitzak behintzat *poesia* terminorako igorpen ohar bat dakar, baina

*olerki* hitzarentzat ez dago sarrerarik. Erabaki azalgaitza, *dekorazio olerki* bezalako sarreren osagai dela ikusirik. Merezi du *olerki* honek ere *poema* terminorako igorpen oharrez hornituriko sarrera xume bat, besterik ez bada. Dena den, halako erabaki eztabaidatsuetan erabateko koherentzia eskatzea gehiegikeria litzateke, nahitaezkoa baita horrenbeste egileren arteko lan batean zeinek bere irizpideei eustea, are gehiago adituak direnean egile horiek.

Euskal literatura hedatzen eta ugaritzen ikusi dugu XX. mendean zehar eta mende berrian ere hala eginez jarraitzen duela ematen du. Hortaz, izango da zer testuinguratu, aztertu, azaldu edota interpretatu etorkizun hurbilean ere. Gainera posmodernitateaz geroz literatura, historia edota nazio bezalako kontzeptu axiomatiko itxuraz finkoak auzitan jarri dira eta horren ondorioz literatura nazionalen historiak berrikustea nahitaezkozat jotzen da. Zeregin biotarako Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiztegia* ezinbesteko lan-tresna baliotsua izango dute irakurle, ikasle, irakasle, aztertzaile, interprete, historiagile eta abarrek. Euskaltzaindia eta batez ere haren Literatura Ikerketa Batzordea zoriondu eta eskertu beharrean gaude unerik egokienean jarri digutelako esku artean *Literatura Terminoen Hiztegia*.

**Valérie Dullion, Traduire les lois (Un éclairage culturel). La traduction en français des codes civils allemand et suisse autour de 1900. Proximités Droit. Éditions Modulaires Européennes. Geneva, 2007. ISBN: 2-930342-71-4. 300 or.**

*Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Hizkuntza eta zuzenbidea, zer esanik ez dago, betidanik daude lotuta. Izan ere, historia eta kultura, gizartearen fruitu eta emaitzak dira. *Ius semper loquitur*, mintzo da beti zuzenbidea. Ezin isilean utzi horren zeregina, horixe baita, hitzen bidez, testuen bidez, gizartearen barruan elkarbizitza antolatzea.

Gutxitan aztertu izan dira gure artean bi osagai horien arteko loturak. Onik onenean ere, aparteko kontuak balira bezalaxe (Kanada), edo, hurbilagoak izanda ere (Belgika, Suitza), guretzat arrotzak eta premiarik gabekoak balira bezalaxe.

Beharrik, azken hogeita bost urteetan gurean ere euskarak lortu du ofizialtasuna. Horrek ekarri dio, besteak beste, egoera berri askoren protagonista izatea, horien artean txikiena eta laburrena administrazioa ez dela.

Administrazio hitzak gure artean islatu nahi ditu zuzenbidea eta arauketa, Europa kontinentalean 1789. urteaz geroztik horiek ezagutzen ditugun moduan, hots, Frantziako Iraultzak ekarritako estatu oroegile eta ahalguztidunaren eskutik.

Estatu horrek, begi-bistakoa denez, zuzenbidea du lanabes eta tresna, eta, horretarako, legeak behar ditu. Lege horien hizkera da kulturaren emaitza berezia, estatu eta gizarte zehatzari atxikia.

Hartara, hizkera horrek badu bere garrantzia, halako jarduera eta zereginetatik kanpo izan diren hizkuntzentzat, barbarako, euskararentzat, agerikoa baita horren premia, egungo Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean. Iparraldean ere, horretarako zantzuak gero eta nabaria-  
goak dira.

Aldizkari ofizialak euskaraz datozkigun honetan, hurrengo gogoeta berezkoa da: nola, noren eskuetatik, zeren bidez? Eta erantzuna ere, berehalakoa:

neurri handi batean, itzultze-lanaren bidez. Egia esateko, gaztelaniaz ari den mundu juridiko eta administratiboaren zordun gara euskaldunok. Frantsesa oraindik bete-beteaz ez dela horretara bildu, eta Europako arautegia jada euskaraz sarean dagoenean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari esker (IVAP-HAEE), komenigarri eta baliagarri izan daiteke atzera begiratzea eta hausnarketa egitea, egun indartsuen diren bi antolamendu juridikoen arteko itzultze-lan juridikoaren gainean.

Horretarako da erabilgarri Valérie Dullion itzultzailearen liburua. Itzulpen juridikoaren arloko ikasketak egin zituen Genebako Eskolan, sona handiko eskola horretan, eta, 1998. urteaz geroztik, bertan da irakasle. Louvain-le-Neuveko Unibertsitatean defendatu zuen tesia, eta tesi horretan azaldu zuen, behinola, 1900. urtean Europako doktrina irauli zuen BGB kode alemana frantsesera nola eta zertarako itzuli zen.


Horrek baditu anitz esparru, eta, hasteko, zuzenbidea eta hizkuntza estekatzen dituenak, eta, horren lotzaile nagusia, itzulpen juridikoa, egun horrek dituen abiapuntu desberdinak oinarri hartuta.

Lanaren nondik norakoak ere egoki azaltzen dira (32. or.). Lehen kapituluak, bi testu erkatzen ditu egileak, hain justu ere, XIX. mendeko kode zibil nagusi biak eta horren ildokoa, Europari dagokionez: batetik, *Code Napoléon* (1804), eta, bestetik, BGB alemana (1896), eta, aurrekoaren ondorioz, Suitzako Kode Zibilaren (CCS deiturikoaren) testu alemana (1907). Hor azpimarratzen dira haien sorreran izan diren egoera bestelakoak. Ondorioak ere bide beretik datoz.

BGB-ren diskurtsoa Napoleonen kodearenari aurrez aurre jartzen badio ere, hori ez da horren argia CCS-ren kasuan. Desberdintasun horiek datoz, etorri ere, herri bakoitzaren historia juridiko eta politikotik.

Horiek horrela, bigarren kapituluak laburbiltzen dira BGB-ren testu frantsesak, lau itzulpenetan (La Grasserie; O. De Meulenaere; J. Gruber; Comité de Législation Étrangère), eta Suitzako Kode Zibilaren testu frantsesa. Egilearen iritziz, bi ideia dira nagusi horietan: lehenari dagokionez, terminologia juridikoa erabiltzeko orduan estrategia eta prozedura desberdinak dira; eta, bigarrenari helduta, itzultzaile batzuen joera askoz hitzez-hitzezkoagoa da fraseologia eta sintaxian, terminologian baino (96. or.).

Hirugarren kapituluak agerian jartzen du itzultzaile horiek nor izan ziren, eta zein zen euren kultura-ingurua. Hainbatez, egilearen ustea honetara dator (135. or.): BGB kodea itzuli zen Frantzia, konparatismoaren ikuspegian, nazioaren zuzenbidea eraberritzeko garaian. Itzulpenak hartzaile ditu legegileak, adituak, eragile juridikoak, G. Gruber-en bertsioan izan ezik. Suitzan, aldiz, itzulpenak zuzenbide nazionala osatu eta bertsio egiazkoa ematen du; testuok indarrean daude eta Suitzako estatuaren legerian barruratzen dira.



Laugarren kapituluak berebiziko interesa du zuzenbidearen hizkeraren aldetik. *Linguistique juridique* edo *iurilinguistics* deitu den horretan, itzulzaileen zeregina lantzen da xehe-xehe, terminologia eta fraseologia juridikoaren arabera. Horretarako eremu terminologiko jakin batzuk aztertzen dira testuetan: tutoretza, oinordetza-itunak, aldameneko tituluak eta fraseologia. Horien ekarriak aurretiko igurikimenak baieztatzen ditu, alegia, terminologiaren alorrean desberdintasun kontzeptual zabalak daudela Alemaniako, Suitzako eta Frantziako sistema juridikoen artean. Horren aurrean, itzulzaileen estrategia ere desberdina izan behar da (177. or.): batzuek sorburu-hizkuntza (SH) lehenetsi dute; beste batzuek, berriz, xede-hizkuntza (XH).

Bosgarren kapituluan, egileak arakatu ditu diskurtsoaren beste aldeak, hau da, nola landu dituzten itzulzaileek lege-diskurtsoaren idazkera-konbentzioak. Emaizta azpimarratzeko modukoa da haren hitzetan (211. or.): BGB-ren itzulzaileek testu alemanaren irudi zehatz-zehatza eman nahi dute, hark duen espezifikotasun osoarekin. Horrexegatik egiten diote uko haren hizkera kodetua

frantsesez emateari. Aldiz, xede-hizkuntza helburu duen CCS-ren itzulpenak ez du, ezta hurrik eman ere, zehaztasun gutxiagoko emaitzarik sortzen.

Azken kapitulua da seigarrena, eta, beharbada, etorkizunari begira eta euskaldunon beharretarako egokiena. Honela mintzo zaigu egilea (254. or.):

*Itzulpenen zeregina... erabakigarria da egitasmoen arteko desberdintasunak azaltzeko, CCS-ren eta BGB-ren lan-itzulpenen kasuan. Izan ere, zeregin horrek barruratzen du itzulpen bakoitza komunikazio-inguru jakin batean... Zer esanik ez, sorburu-hizkuntzak ere (SH) badu bere esana: BGB-ren kasuan, kodetik oso gertu; CCS-ren kasuan, zabalago<sup>1</sup>.*

Azken gogoeta gisa, bada zer azpimarratu egun barra-barra dabilen koidazketaren arloan, edota nor itzultzaile, legelaria edo bestelakoa.

Bi langintza nabarmentzen ditu egileak (265. or.): lehena, jurisprudentzia aztertzea, epaileek hizkuntza anitzeko testuak nola interpretatzen dituzten ulertzeko; eta, bigarrena, koidazketaren eraginaz jabetzea, SH-ren testuan eta XH-ren testuan, bi-bion arteko lotura ziurtatzeko.

Hitz gutxitan esateko, aldarri aproposa, bibliografia aberatsa barruratzen duena, euskararen mundu juridiko eta administratiboa kezka-iturri dugun guztiontzat.

---

<sup>1</sup>Itzulpena gurea da. Jatorrizkoa, 254. orrialdean: «La fonction des traductions est déterminante pour expliquer la différence de projet qui sépare nettement la traduction du CCS des quatre traductions du BGB. En effet, cette fonction inscrit chaque traduction dans tout un environnement communicatif... Il faut cependant ajouter que le langage des texts de depart... langage proche du code dans le BGB, système moins rigoureux dans le CCS».



**Narciso M. Contreras Izquierdo, *El diccionario de lengua y el conocimiento especializado en la sociedad actual*. Universidad de Jaén. Jaén, 2008. ISBN: 978-84-8439-405-1. 261 or.**

*Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Hona hemen, egun hiztegitan pil-pilean dagoen gai bati erreparatu dion liburua, hain zuzen ere, nola azaldu jakite berezietako hitzak hiztegi orokorretan.

Izan ere, hizkuntza desberdinetan nabaritzen da fenomeno hau, XX. mendetik hona; are gehiago XXI. mendetik hona, etenik gabe ari baita hasten eta zabaltzen lexiko bereziaren arloa, zientzia eta teknikaren hitz eta esamolde-etatik hainbat, eremu berezietan ez ezik, bizimodu arruntean ere erabiltzen diren heinean.

Hartara, garaiotako komunikabideak ari dira barreiatzen halako unitate lexikalak, erkidego zientifikotik harago doazenak eta gizartearen ahoan direnak, edozein hizkuntzaren hiztun ikasik behar-beharrezkoak baititu egun.

Contrerasen hitzetan, egoera hori aintzat hartzeko modukoa da, eta aditu askoren arteko elkarlana behar du. Berak hiru azpimarratzen ditu, alegia, lexikografoak, terminologoak eta arloan arloko adituak (XIX. or.).

Contrerasen aburuz, ezinbestekoa da hiru eremu jartzea begipean (XVI. or.): lehena, zientziaren filosofia; bigarrena, terminologia; eta, hirugarrena, hizkera espezializatuen linguistika.

Bide beretik, lehenari so egiten dio aurreneko kapituluaren, gizarte modernoan jakite espezializatuen nondik norakoak azalduz. Kapituluaren mamia dator, etorri ere, hari beretik: ea jakintza zientifiko eta teknikoak sailkatzeko, irizpide eraberekoak erabili behar diren ala ez. Hitz gutxitan esateko, nazioarteko xehetasunak ematen dira, jakintza horien aniztasuna erakusteko, eta, horrekin batera, batxilergo-ikasketak oinarri hartu eta Europar Batasunaren EURODICATOM datu-bankura biltzen diren 48 eremuak aipatzeko.

Hasierako galderak, alabaina, bere horretan dirau, horretara baitator bigarren kapituluaren kontua, alegia, hizkera espezializatuak zer-nolakoak diren

argitzera, gerokoan ere zehaztu ahal izateko nola islatzen diren horiek hiztegi orokorretan.

Bigarren kapituluak darama irakurlea esparru espezializatuen arlorra, hizkera espezializatu horien definizio bila baitoa Contreras. Izenetan ugaria bada hori, izanaren ikuspegitik egilearen iritzia argia da, haien ezaugarriak pragmatikaren aldetik azpimarratzen baititu. Hainbatez, halakoak hizkuntza orokorraren aldakiak dira (35. or.), pragmatikaren bidez eratuak. Areago, ikuspegi komunikatiboa da, haren ustez, haien izaera ondoen zehazten duena. Egin-eginean ere, hiru aldagai dituzte halakoek barne muinetan: gaia, erabiltzaileak eta komunikazio-egoerak.

Hurrengo puntua, agerikoa den moduan, berez dator kio Contrerasi, hots, zertan diren bat hizkuntza orokorra eta hizkera espezializatuak, eta zertan ez. Erkide ikusten ditu hark osagai fonologiko eta morfologikoak; sintaktikoak ere bai, neurri batean bederen; semantikoak bazterrean utzi gabe. Aldendu beharrekoak, gehienetan, lexikoan ikusten ditu, terminologian (36. or.).

Dena den, askiez iruditzen zaizkio Contrerasi aurreko faktore horiek, hizkera espezializatuen izatea zedarrizatzeko. Hark behin eta berriro azpimarratzen du hizkera orokorraren eta espezializatuen arteko diferentzia ez dela muinaren aldekoa, mailarena baino (37. or.). Hau da, komunikazioaren eraginak dakar hizkuntza-maila guztietan hautu bat egitea (batik bat, maila lexikoan eta testualean, baita maila morfosintaktikoan ere, fonetika-fonologia alboratu gabe).

Horiek horrela, kapitulu horren bizkarrezurra da hizkera espezializatuen ezaugarriak egoki zertzea. Terminoa/hitza bikotea gaindituta, eta mailaz maila, badoa Contreras lexiko espezializatuaren luze-zabalak ontzera, fonetika, grafia, morfologia, sorkuntza-prozedurak eta semantika laguntzaile dituela, betiere faktore komunikatiboak ardatz ikusita. Helmuga, argi dago, terminologiak ematen dio.

Terminologiaz denaz bezainbatean, bada lexikografiaren eta terminologiaren arteko zubigintzarako tartea liburuan. Iritzi baikorra du egileak, hain justu ere, euskararen esparruan erabat erabilgarri gerta daitekeena:

*Lexikografiak eta terminologiak elkar osatzen dute, egituraz nahiz jardueraz. Lehena semasiologikoa da, eta testuen interpretaziorako soroslea. Bigarrena, aldiz, onomasiologikoa da, eta ekoizpena laguntzen du<sup>1</sup>.*

Liburuaren hirugarren kapituluak barruratzen du jakite espezializatuen presentzia hiztegi orokorretan. Aukera desberdinak aztertu ondoren, Contrerasen argiro erakusten du hiztegiak gizartearen islak direla; zehatzago esateko, gizarte honek sortu duen kulturaren islak, eta, hor, zer esanik ez, lexiko espezializatuak


<sup>1</sup>Itzulpena gurea da. Jatorrizkoa, 69. orrialdean: «Lexicografía y Terminología se complementan estructural y funcionalmente: la primera es semasiológica y ayuda a la interpretación de textos, mientras que la segunda es onomasiológica y apoya la producción».

egon behar du, hiztun ertainak duen kultura eta informazioaren arabera. Tradizioa eta intuizioa, horra hor berak ikusten dituen bi irizpide nagusiak (99. or.), lexikografiaren aldetik halakoak lantzeko orduan. Horrekin batera ere, definizioa nola eman eta nork eman, horren hizkera zein, hiztegiaren markazioa zer-nolakoa... horien guztien argi-ilunak arretaz aztertzen ditu Contrerasek.

Laugarren kapitulua da azkena, aurretiaz esandakoaren adibide esanguratsua. Horretarako, hainbat hiztegi orokorren hautua egiten du (DRAE; GDLE, CLAVE, DGLE, DEA), gaztelaniaren ikuspegia emateko asmoarekin (133. or.).

Horretan ere, egin asmo duenak gidatu du Contrerasena, hasi atarikoetan esaten denetik eta buka definizioetan, artean markazioa zein, gai zientifikoak eta teknikoak barruratzen diren, nola eman diren horiek hiztegien makroegituran... Horiek oro ikertzen ditu xehe-xehe, gaztelaniarentzat ez ezik, beste hizkuntza batzuentzat ere lagungarri izan daitekeena azalduz.

Ondorioak, labor-zurrean esanda, oso ohargarriak dira. Hasteko, jakite espezializatuen egituratze sistematikorik eza hiztegi orokorretan, halakoak barruratzen baitira tradizioaren edota lexikografoen iritzien arabera. Bestalde, diziplinartekotasunik eza; markazio normalizatuaren beharra; erreferentzia-copusaren heterogeneotasuna; eta, orenen gaintetik, erabiltzailea kontuan hartu beharra.



Proposamenak ere badira liburuaren ondorioetan. Aldera ditzagun hona horietatik batzuk:

- a) Jakite espezializatuen egituraketa eta antolakuntza zehaztea (238. orrialdetik 240.erakoak).
- b) Hiztegirako erreferentzia-copusaren testuak egoki hautatzea, neurriz jokatuz eta gaiak aintzat hartuz.
- c) Markazio-sistema laburra izatea, arlo nagusietan barruratzuz. Era berean, marka horiek erabilera izan behar dute helburu, testua eta testuingurua eskuragarri eta eskuraerraz izan ditzan erabiltzaileak. Horretan ere, terminologoen lana batera letorke.
- d) Horrek ekarriko luke hiztegien definizioak hobetzea eta aitzinatzea, horrekin ere lan lexikografiko orok behar duen koherentzia galdu gabe.

Aurreko horiek guztiak ez dira garrantzi gabekoak, batez ere euskararen baitan, bertara biltzen baitira prestatze-bidean dagoen terminologia eta lehen-dik datorren lexikografia.

Are nabariagoa da hori, beste hizkuntza batzuen lexikografian ikusten direnak ikusita. Aspaldiko kezka da hori gure artean, eta jorratu beharrekoa ere bai, lexikografia akademiko eta arau-emailean nahiz bestelakoetan.

Beldur naiz, ordea, ez ote dugun aukera galduko, *Institut d'Estudis Catalans*ek bere *Diccionari* horren bigarren argitaraldian egun duena egiteko, hau da, arloan arloko hitz tekniko eta zientifiko berriei ateak zabaltzeko, gure gaurko hiztunek arazorik gabe erabil ditzaten halakoak.

Jokoan dago geroa, eta, bistan denez, oraina ere, euskararentzat.

**Jean-François Courouau, *Moun lengatge bèl. Les choix linguistiques minoritaires en France (1490-1660). Cahiers d'Humanisme et Renaissance, 86. Libraire DROZ. Geneva, 2008. ISBN: 978-2-600-01189-1. 472 or.***

*Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Titulutik bertatik datorkio jakin-mina liburu honen irakurleari. Egin-eginean ere, gero eta maizago ikusten dira halako gogoetak Frantziako lurralde-eremuan, frantses hizkuntzaren inguruan bizirik dauden beste hizkuntzak ere hortxe baitira.

Courouau-k hiru kapitulu eman dizkio horri, behinola Frantziako erresuma izandako haren «osterantzeko» hizkuntzak barruraturaz, literatura-forma desberdinetan, nahiz nobeletan, nahiz hiztegiatan, nahiz olerkietan edota olerkiak berak erregearekin eta boterearekin zituen harremanetan. Itxiera, ez ahan-tzi, ezin interesgarriagoa da, eskualdeetako eliteek horrekiko izan zuten jokae-ra azaltzen baitu, hizkuntza horien sustapenerako erakundeetan, Okzitaniako Tolosan edo Normandiako Rouenen.

Funtsean, jokoan dagoena zera da: diglosiaren kontzeptutik abiatuta, diglosia horren nondik norakoak deskribatzea, aldi jakin batean.

Egileak berak markatzen du zelai-jokoa. Hasteko, horrek baditu bere mugak (15. or.): lehena, historialarien zordun izatea; orobat, soziolinguistikoe-na; eta, zer esanik ez, eta haren hitzetan, «osterantzeko» hizkuntza horiek ezaupide gutxikoak izatea eta adituak ere ugari ez.

Hasian hasi, osagai erkidean dute horiek euren oinarria, testuan, hain justu ere. Bide estua da, hala ere, hori, eta jausiak dituena, hizkuntza-eremu batetik bestera. Aldiak aldi, aztergai da inprimategiaren hasieratik (1490) Errege Luis XIV.ak aginpidea hartu arteko garaia (1660). Lekuak leku, Frantziako erresuma du helmuga, Biarno eta Nafarroa, gutxitan bada ere, bazter utzi gabe. Olerkia da nagusi; egileak, hala ere, zenbait kasutan, okzitanao, euskara eta bretoaia, hala nahita, uzten ditu sakon ikertu gabe, erlijio-prosaren esparruan. Bistan da hiru hizkuntza horien egoera soziolinguistikoa ez dela berdina, ezta hurrik eman ere.

Askoz pisuzkoagoa da, nire ustez, zertara datorren erlijio-testu sortze hori. Courouau-k bi arrazoitik ikusten du afera (20. or.): lehenengoa, populazio handiaren oldartzea, frantsesaren hedatzearen aurrean; eta, bigarrena, eragin pragmatikoa, hizkuntzaren errealitatea errespetatu behar duena. Helburua ez da euskara goi mailako hizkuntza jaso bihurtzea, ezpada idatzia bera euskararen mailara jaitea (21. or.). Pedagogia eta pragmatika bateratzen dira hemen, irakurketa kolektiboaren bitartez, non jende alfabetatu batzuk diren gehiago analfabetoarentzat testuen ararteko.

Gaiari helduta, Courouau-k lehen kapituluak deskribatzen du garai horretako hizkuntzen egoera (latina, frantsesa, horren dialektoak, frankoproventzera, okzitanoa, bretoaia, euskara, hebreera eta ijitoera). Euskarari dagokionez, alabaina, informazioa zuzena bada ere, azalekoa da, xehetasun berririk gabekoa. Pentsatzekoa da, nolahi ere, horrelako planteamenduetan Lazarragaren testuak izan dezakeen esangura, bete-betean kokatzen baita haren testua, garaiz eta asmoz, liburu honetan aztertzen denaren barruan.

Bada, hala ere, bigarren kapituluak eta olerkiaren inguruan eskema osoa, Gabonetako noeletan hasten dena, eta hizkuntza horien gramatika eta hiztegiak biltzen dituenak. Aipagarriak, ageri-agerian eta gure artekotan, Oyhenart eta Etxepare, gehienak okzitanoen esparru geografiko zabalekoak badira ere.

Eskema horrek segida dakar hirugarren kapituluak, horretan azaleratzen baitira olerki bereziak, erregeri zuzenduak. Zergatik hori? Zergatik erabiltzen dira hizkuntza «horiek» Frantziako erresumaren agintari gorenaren aurrean, eta bera goraiatzeko eta laudorioetan jartzeko? Erregeak hirietan egiten zituen sarrera-jaiak dira erakusle nabariak puntu honetan, horietara biltzen baitira, sarri-sarri, olerki-bildumak, frantsesetik eta beste hizkuntzetan. Planteatu ere planteatzen du ea euskaraz horrelakorik egon zen, oraingoz horren frogarik ez badago ere.

Nor dira eginkizun horiek babesten dituztenak? Courouau-ren aburuz, hiru talde dira horren sustatzaileak: aristokratak (350. or.), lekuan lekuko aitoren semeak (360. or.), parlamentuko kideak (363. or.), eta, esan gabe bada ere, hirietako boterea duten agintariak (368. or.).

Gizabanakoak gutxietsi gabe, argi dago, Courouau-ren iritziz, erresumaren lurraldeetako literatura-bizitza erakundeetan antolatzen dela. Erakunde horiek akademikoak dira. Bi aipatzen ditu Courouau-k: bata, Tolosako erretrorika ikastegia, Lore Jokoen antolatzailea eta okzitanoaren sostengatzailea; eta, bestea, Roueneko Puga, normandoaren aldetik.

Ondorioetan ere, azpimarragarriak:

- a) Villiers-Cotterêts ordenantzak sorrarazten du halako hizkuntza politika, hala nahitako aukerak dituenak, hizkuntzaren eta gizartearen artean (417. or.).

- b) Frantziako monarkiak pragmatismoaren alde egiten du. Kontuan hartzen ditu eskualdeetako eliteak eta horiek egin duten apustua hizkuntza idatzia, gizartearen barruko igoera dakarrena, frantsesa izan dadin; berbaz, aldiz, eskualdeko hizkuntzetan bizi daiteke. Hizkuntzen mailakatzea hortxe dago (418. or.).
- c) Hori gorabehera, hizkuntza horien literatura loratzen da. Gaiak, berriz, mugatuak dira: teologia, filosofia, zuzenbidea, zientzia, nobela eta abarrekoak horretatik at daude. Inprimatzen direnek zabalkundea badute. Bigarren mailakoak izanagatik ere, badute euren esanahia (419. or.).
- d) Elite horiek eskualdeetako hizkuntzak behar dituzte euren eguneroko bizitzan. Bada halako estekadura, halako lotunea, giza seme-alabak eta hizkuntza bat egiten dituen (421. or.).
- e) Erregeak ez du horretan interes berezirik. Aldi berean, horrelako hizkuntzetan idazten direnek ez dute inolako modurik literatura-ibilbidea egiteko, latin edo frantsesetik kanpo. Salbuespenak, Tolosa/



Rouen egoera diglosikoa kudeatzen dutenak, Godolin eta Ferrand moduko idazleen bidez.

- f) Idazle horiek arras argi idazten dute zuzenbidearen, erregeren edo frantses letren hizkuntzan, baina beste hizkera batzuk ere erabili nahi dituzte. Hala bete nahi dute lehen esandako hizkuntzen arteko mailakatzeko berezkoa, gizarteari dagokiona.

Labur-zurrean, bada hor aukera etiko eta estetiko, munduaren ikuspegia, dela ordena, dela justizia, dela literatura, dela bizitza. Horixe da, izan ere, hizkuntza gutxituaren aldeko aukera, idazle horientzat adierazi eta laburbiltzen duena.

Bibliografia eta aurkibideak ere liburuaren eranskin erabilgarriak dira, euskaldunontzat zeresan ugari duen liburu honen barruan.



**Rudolf P.G. de Rijk, *Standard Basque: a progressive grammar* /. -- Cambridge (Massachusetts): MIT Press, 2008-Libk. 1 : map ; 24 cm. -- (Current studies in linguistics ; 44)**

*Patxi Goenaga,  
Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea*

Hamaika lan jaso ditu euskalaritzak Rudolf de Rijk-en eskutik, euskal sintaxiari eta morfologiari dagozkionak batez ere. Erlatiboei buruzko haren MIT-ko tesia, *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, adibidez, 1972an idatzia, aitzindari izan zen. Hitz ordenari buruzko lanak ere eskuz esku ibili ziren eta dabilta. Lan horiek eta beste batzuk ASJU-k eman zituen argitara (Rudolf P. G. de Rijk, 1998, *De Lingua Vasconum: Selected Writings*. Supplements of the Anuario del Seminario de Filologia Vasca «Julio de Urquijo», n<sup>o</sup> XLIII. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao). Hain zuzen, artikulu bilduma eder honetako hainbat lanen oihartzuna aurkituko du irakurleak gramatika honetan. Oihartzuna ez ezik, gai beren formulazio berriak ere bai. Aipaturiko bilduma haren sarreran hizkuntzalari holandarrak berak aitortzen duenez,

«this work cannot substitute in any way for a comprehensive Basque grammar. Providing such a text is an arduous task I have been wrestling with for some time, and which, *Jaungoikoa lagun*, I hope to complete in due course».

Hain zuzen, aipatutako gramatika zabal hauxe da hemen hizpide duguna. Zoritxarrez, lana osorik burutzeko astirik ez zuen izan, 2003an utzi baikintuen. De Rijk-ek hogeita hamar urtetik gora eskaini zizkion lan honi. Hala ere, amaitu gabe utzi behar izan zuen. Eta hala, «comprehensive» barik «progressive» gisa eskaini zigun. Gizonaren apaltasuna! Zeren, amaitu gabe utzitako atal batzuk eta lits bakan batzuk gorabehera, liburu bikain eta egiazki erabateko gertatzen den honek harro eraman baitzezakeen izenburuan «comprehensive» adjektiboa ere.

Gramatika zabala da eta edukia modu mailakatuan eta aleka-aleka bezala eskaintzen zaigu. P. Salaburuk hitzaurrean dioen bezala, de Rijk, arazo bat aurkeztu ondoren, apurka-apurka, zirkulu kontzentrikoetan bezala lan eginez, hizkuntza arazo bakoitzaren sakonera iristen da.

Gramatika honek gaurko euskara batua du aztergai, baina euskalkiei egiten zaizkien erreferentziak, edo hizkuntzaren historiari egiten zaizkionak,

hizkuntza tipologiari dagozkionak, gure testu zaharretako aipamenak... nonahi aurkituko ditu irakurleak. Horrela, euskaraz ongi dakien baina hizkuntzaren ezagutza sakondu eta ezagutza hori osatu nahi duenak ere informazio izugarria bil dezake orrialde hauetan zehar, informazio zabala eta sakona. Hizkuntzalari zorrotz eta jakintsu baten ia bizi osoko lana biltzen baita liburu honetan.

1. kapituluaren sarrera bat eskaintzen da, euskalkien eta euskara batuaren aurkezpena egiteko baliatzen dena. Ahoskerari eta fonetika-fonologiari buruzko saio labur bat ere ematen da. Bestalde, kapitulu guztietan egingo den bezala, hiztegiari buruzko atala eta itzulpen ariketak aurkituko ditu irakurleak.

2., 3. eta 4. kapituluetan, Izen Sintagmaren osagaiak aztertzen dira: numeralak eta zatikiak, kasu markak, mugatuaren eta mugagabearen izaera eta erabilera, leku-denborazko kasuak eta egileak «location nouns» deitzen dituenak (*atze, aurre, ondo, oste, gain, azpi* eta holakoak). *Location noun* hauek eta postposizioak bereizten ditu de Rijk-ek.


Izenlagunen arazoaz luze dihardu 5. atalak. Gai hau ere lehendik landua zuen egileak (ik. de Rijk, 1993, «Basque Hospitality and the Suffix –ko». *De Lingua Vasconum: Selected Writings*. 377-390). Aspalditik onartua da gure artean direlako izenlagun hauek, azpian, beste Postposizio Sintagma batzuk dituztela, inesiboa bereziki. De Rijk-ek urrunago darama kontua, zeren nolokotasuna adierazten duten izenlagunen azpian ere (*bihotzaldi handiko poeta* bezalakoetan) ezabatutako postposizio bat dugula aldarrikatzen baitu eta postposizio hori, gainera, soziatiboa dela, hots: *bihotzaldi handiekin –ko poeta*.

–EN eta –KO, K. Mitxelenaren ildotik, berez eratorpen tresna direla onartzen du egileak. Proposamen honen bitxitasunaz konturatzen da, hala ere, zeren benetan eratorpen atzizki direnek ez baitute sintagmen gainean lan egiten, hitzen gainean baizik. Kontua da egilea ez dela geratzen deskribapen hutsean, hipotesiak eta historiari buruzko azalpenak nonahi ageri dira liburuan. Noizbehinka, ohar historiko-bibliografikoak txertatzen ditu testuan. Kasu honetan adibidez, P. Lhanderen hiztegitik hasi eta gaur arte egin diren proposamenak aurkezten dizkigu de Rijk-ek. Bide batez, holako oharrak ugariago ez izatea pena da.

Aditzaren azterketari kapitulu ugari eskaintzen zaizkio. Seigarren kapituluaren ekiten dio egileak lan horri, eta 7-10 bitartekoetan jarraitzen: intransitiboak lehenbizi, transitiboak gero. Partikula modalak ere hemen aztertzen dira. Eta gaiak horretara eramanda edo, hitz ordena kontuak, topiko/foko eta holakoek ere hemen hartzen dute leku.

Ergatiboaz, transitibotasunaz eta, oro har, aditzaren sailkapenari eskaintzen dizkion atalak bikainak dira, 12. kapitulua, esaterako.

Aditz modalak (NAHI, BEHAR, GOGO ...) eta hauen osagarri diren perpau-sak aztertzen dira 14. atalean. 16.enean, aditz arazleez dihardu.



Perpauus elkarketak ere liburuaren zati handi bat hartzen du: baldintza perpauusak (17. atalean), perpauus osagarriak, galderazkoak nahiz adierazpenzkoak (18. enean). Morfologiatik abiatu eta syntaxian amaitu. Perpauusen osaerari ez ezik, egileak garrantzi handia ematen die ordena kontuei. Hitz ordena izan da, hain zuzen, de Rijk-en lanetan errepikakorrenetarikoa.

Izenaren osagarri diren perpauusak direla eta, -(E)LA perpauus osagarria ezin daiteke agertu izen bati atxikia, -KO atzizkia tarteko ez bada. Atzizki horren aurrean desadostasuna omen dago hitzunen artean: batzuentzat [...-ELA] Izen Sintagma litzateke eta, horrenbestez, genitiboaren marka hartuko omen luke (-(E)LAREN) (461. or.). Onartzen du, hala ere, euskara estandarrak -ELAKO-ren bidea hartu duela. Gauzak horrela, -ELA-k postposizio izaera izango luke. Honen alde omen dator etimologia (-ELA, azken batean, adlatiboaren postposizio bera izango litzateke: hala zioen Lafittek, 1944: 400). Sintaxi teoria ere ikuspegi honen aldeko gertatzen da, Emonds-en arabera, konplementa-

tzailak adposiziotzat har baldin badaitezke. (ik. J. Emonds, 1985, *A Unified Theory of Syntactic Categories*. Foris, Dordrecht)

Subjunktiboaz eta aginteraz dihardute 21. atalak eta 22.ak. Oraingoan ere, nola ez, gauza jakingarri asko aurkituko ditu irakurleak. Esaterako, beste gramatiketan (*Orotariko Euskal Hiztegia* bai, jakina) lekurik izaten ez duen «monitive» delako *gero*-ren erabilera («ez niri gero Donostia ukitu» bezalakoetan ageri dena) aipatuko nuke. Honek erakusten du de Rijk-en gramatikako euskara estandarra zein hurbil dabilen ahozko euskaratik. Hurbiltasun horixe erakusten digute beste zenbait esapidek ere. Adibidez, hor dugu *auskalo* bezalako elementu bat, EA, AL, OTE eta antzekoen parean (449-450. orr.).

Beste kapitulu nagusietako bat da 19.a, perpaus erlatiboek eskainitakoa. Egilearen 1972ko lana aipatu dugu hasieran. Gramatika honetan perpaus hauei eskaintzen zaien atala ere azpimarragarria da. Esan nezake liburuaren atalik biribilena berau dela. Hogeita hamar orrialdetan, euskal erlatiboek ikuspegi zabala eta zehatza eskaintzen zaio irakurleari. Adibide ugari, xeheki azertuak, eta euskal erlatiboaren gorabeherak argiro eskainiak. Nabardurarik txikienak ere arreta handiz tratatuak. Hori gertatzen da oraingoan ere. Ikus esaterako, -TXO atzizkiak erlatiboetan duen egitekoaz dioena (485-486. orr.). Beste gramatiketan nekez aurkitzen da holako erreferentziarik. Argiro azaltzen du, halaber, [... -T(Z)EKO] izen-osagarriaren eta [... -T(Z)EKO] erlatibo jokatuagabearen arteko bereizketa: hitz gutxitan informazio aberatsa.

Ondoren datoz denbora perpaus adberbialak (20. kapitulua), kausazkoak, kontzesiboak (23. atalean) eta konparaziozkoak (25.a).

De Rijk-ek argitaratzeko prest utzi zituen kapituluetarik azkena 27.a dugu, «Kasu instrumentalaren erabilera» izenburua duena. Instrumentalaren erabilerak euskaraz, jakina denez, ñabardura asko ditu. Euskalki guztiek ez dute berdin jokatzeko, mugatzaileak edo mugatzaileak ezak zer betekizun duen ere ez dago argi. Kontu hauek aski misterioitsu gertatzen dira gramatikariarentzat, baina egilea erabilera hauek denak biltzen eta aztertzen saiatu da kapitulu honetan, beste inon ez bezalako hedaduraz eta sakontasunez aztertu ere.

Berak prest utzitako kapitulu hauetan denetan adibideak ugari dira, ongi aukeratuak, bakoitza bere ingeleseko itzulpenarekin. Holako lanetan ohikoak izan ohi diren glosak, aldiz, morfemaz morfemako irakurketan laguntzeko jarri ohi direnak, ez daude testuan bertan tartekaturik, bigarren atal batean baizik. Lan hau Armand de Coene hizkuntzalari holandarrak prestatua da, de Rijk-ek berak, hil aurretioxan, hala eskatuta. Dударик gabe, lan luzea eta nekeza, baina oso txukun egina eta irakurle/ikasle ez-euskaldunak eskertuko duena.

Glosa hauez gainera, holako lanetan ohikoak diren aurkibideak ditugu. Gai aurkibidea aipatu nahi nuke bereziki. Honek erakusten du benetan zein den liburu honetan biltzen diren gaien ugaritasuna. Gai zerrenda zabal hau ikusita, berehala ohartzen gara euskaraz ikasi nahi duenarentzako lana baino

zerbait sakonago eta trinkoagoa dela gramatika hau. Hasieran, sarrera-ikastaro xume zena euskararen deskribapen zabal eta sendoa bihurtu zitzaion de Rijk maisuari. Azken batean, bere bizi osoko ikerketaren emaitza dotorea eta ederra dugu liburu hau.

Liburu amaitu orduko joan zitzaigun gure hizkuntzalaria. Baina utzi zizkigun, azken ukituen beharrean, beste atal batzuk ere. Sei kapitulu dira: 30. kapitulua juntadurari buruzkoa da, aski taxutua. 29. kapituluan txertatua ageri da, berriz, perpaus osagarri jokatugabeen laburbilduma bat, zoritxarrez laburregia. Gainerako gaiak hitz eraketari buruzkoak, izenordain mugagabeen edo adizki alokutiboen eta abarren ingurukoak dira. Erabat osatu gabe geratu den lan baten lekuko gisa eskaini zaizkigula esango nuke.

Eta azken ohar bat, amaitzeko. Holako gramatika liburu mardula (1300 orrialdetik gorakoa) esku artean hartu eta ohiko moduan begiratzen hasiz gero, atal bakoitzak gaiaren aldetik batasuna izatea espero izatekoa da. Alegia, atal batek «Relative clauses» izenburua badu, pentsatzekoa da barnean erlatiboak baino ez ditugula aurkituko. Baina ez. Kasu honetan, adibidez, erlatiboan gaia amaitu ostean, -OK artikulua hurbilari eskainitako atal bat dator, eta beste bat ondoren, -DUN atzizkiari buruzkoa. Gai desberdinen metaketa hau areagotu egiten da beste kapituluetan. Batzuetan kapituluaren izenburuan bertan, berez ikusteko zuzenik ez duten gaiak biltzen dira: 17. kapituluan, adibidez, baldintzakoak eta prolatiboa, biak agertzen dira kapituluaren buruan bertan. Ikastaroen harira sortutako lan bat izanik, ulertzen da ikasgaiz ikasgai antolatzea material desberdinak: sintaxi gai bat hemendik, beste bat gero, morfologia apur bat, hiztegia eta ariketak. Baina ikastaro izaeratik harago joan da gramatika hau, kontsulta liburu izatera iristeraino, eta ez nolanhikoa. Horregatik, gai desberdinak atal berean biltze honek, hasieran, irakurlea noraezean bezala utzi dezake. Baina de Rijk ezagutu zuenak ongi daki haren zorrotasunaren eta zehaztasunaren berri. Gaiak modu jakin horretan antolatzeko arrazoia, segururik, liburuaren hasierako asmoan bilatu beharko da, ikasmaterial izaeran, hain zuzen. Dena dela, arreta pixka bat jarritz gero, berehala konturatzen da irakurlea gai-biltze hori hutsa baino gehiago huskeria dela, irakurle erneak erraz gaindi dezakeena. Gai aurkibide bikaina ere hor baita ukagu.

Liburu honetako orrialdeetan urteetako lana joan da pausatzen eta orain euskalariok, hizkuntzalariok, eta munduan zehar euskara ikasteko grina duen jende askok hemen izango du lan bikain hau eskura. Liburu postumo honen kaleratzean parte izan duten guztiek, Virginia de Rijk, hizkuntzalariaren alargunak, Armand de Coene-k eta Fleur Veraart-ek, besteak beste, eta orobat Cornell-eko, Leiden-eko eta Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntzalariak eta unibertsitateek berek, zerbitzu ezin estimagarriagoa egin diote euskalaritzari liburu bikain honekin. Liburuaren atarikoan Lazkao Txikiren 1965eko bertsoan jasotzen den eskaria bete du de Rijk maisuak:

«Zabaldu zazu emengo berri / naiz txarra eta naiz ona. Esan izkuntza zar bat badala / ia galduan dagona».